

# Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.

## LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuek EAEko Hezkuntza publikoko irakasleen eta sukalde eta garbiketako kolektiboak barnebiltzen dituen greba erregistroa egin dute

LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuak Donostiako Lurralde Ordezkaritzan elkartu dira EAEko Hezkuntza publikoko irakasleen eta sukalde eta garbiketako kolektiboak barnebiltzen dituen **greba dinamikaren erregistroa** egin eta urtarrilean hasitako greba eta mobilizazio zikloari jarraipena emateko.

Izan ere, urtarrila eta otsailean zehar egindako greba eta mobilizazioak izan dira Hezkuntza Saila mahai berriak deitzera behartu dutenak. Horrela, **gaur eta biharko deitu ditu mahai negoziatzaileak**, gaurko sukalde eta garbiketako, eta biharko irakasleena. Sindikatuek Hezkuntza sailari beste behin ere eskatu diote **grebetako eskaerei erantzungo dioten edukiak jorratzeko**.

Beraz, kalitatezko hezkuntzaren bidean Hezkuntza Sailak lan baldintzak hobetu, sare publikoa erdigunean jarri, indartu eta inbertsio publikoa handitu dezan eskatzeko beste **5 greba egun** erregistratu dituzte, **martxoaren 25, 26 eta 27an eta apirilaren 1 eta 2an**.

Indarrean dagoen sukalde eta garbitzaileen lan hitzarmena 16 eta irakasleena 15 urte dituzte, urtarrileko eta otsaileko mobilizazioetan langileek argi eta garbi adierazi zioten

Hezkuntza Sailari hitzarmen horiek orain eta hemen negoziatzeko beharra, benetako edukiak mahai gainean jarritz.

Kolektibo bakoitzari egokitutako aldarrikapenak badituzte ere, geroz eta handiagoak diren **lan-zama** arintzeko neurri zehatzak adostea nahi dute, erretiroa hartzeko baldintzak hobetzea eta plantillen **gazteberritze plana** garatzea, galdutako **erosahalmena berreskuratzea** eta jaiotza tasaren jaitsierak aprobetxatuz aldebakarrez erabakitzen ari diren ikastetxe publikoen fusio eta itxieren aurrean **enplegu publikoa bermatu eta lanpostuak egonkortzea**.

Era berean, Hezkuntza publikoko sistema osoa **euskaldunduko** duen hezkuntza politikak abiaraztea, langileon **lan-osasuna** zaindu eta kalitatezko **berdintasun** eta **hezkidetz**a plan egonkorak garatu ahal izateko baliabideak jartzea eta baita azken urteetan inposatutako **atzerapausoak kentzea** ere.

Argi dute langileon mobilizazioekin batera Hezkuntza publikoa erdigunean jartzea, ikasleak erdigunean jartzea eta lan baldintzak hobetzea lortuko dutela.


Euskal Herria, 2025eko martxoaren 18an

**LAB**

**steilas**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**CCOO**  
irakaskuntza



# Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

## LAB, STEILAS, ELA y CCOO registran la huelga que incluye al profesorado y el colectivo de cocina y limpieza de la educación pública de la CAV

Los sindicatos LAB, STEILAS, ELA y CCOO se han reunido en la Delegación Territorial de Donostia para **realizar el registro de la dinámica de huelga** que engloba al profesorado y al colectivo de cocina y limpieza de la Educación pública de la CAV y dar continuidad al ciclo de huelga y movilizaciones iniciado en enero.

De hecho, han sido las huelgas y movilizaciones llevadas a cabo a lo largo de enero y febrero las que han obligado al Departamento de Educación a convocar nuevas mesas. Así, ha convocado **mesas negociadoras de cocina y limpieza para hoy, y la del profesorado para mañana**. Los sindicatos han pedido una vez más al departamento de Educación que **aborde los contenidos que responden a las demandas de las huelgas**.

Por lo tanto, han registrado otras **5 jornadas de huelga, los días 25, 26 y 27 de marzo y 1 y 2 de abril**. Piden al Departamento de Educación que, hacia una educación de calidad, mejore las condiciones laborales, ponga a la red pública en el centro, refuerce y aumente la inversión pública.

El convenio laboral vigente de cocina y limpieza tiene 16 años y el de docentes 15, y en las movilizaciones de enero y febrero los y las trabajadoras trasladaron claramente al

Departamento de Educación la necesidad de negociar estos convenios aquí y ahora, poniendo sobre la mesa contenidos reales.

Aunque tienen reivindicaciones adaptadas a cada colectivo, quieren acordar medidas concretas para aliviar la creciente **carga de trabajo**, mejorar las condiciones de jubilación y desarrollar el plan de **rejuvenecimiento** de las plantillas, **recuperar el poder adquisitivo perdido** y **garantizar el empleo público** y **estabilizar los puestos de trabajo** ante las fusiones y cierres de centros públicos que se están decidiendo unilateralmente aprovechando la bajada de la natalidad.

Asimismo, poner en marcha políticas educativas que **euskaldunicen** el sistema educativo público, poner los medios para poder cuidar la **salud laboral** de las personas trabajadoras y desarrollar planes estables y de calidad de **igualdad y coeducación**, así como **eliminar los retrocesos** impuestos en los últimos años.

Tienen claro que junto a las movilizaciones de los y las trabajadoras conseguirán poner la Educación pública y al alumnado en el centro y mejorar las condiciones laborales.

En Euskal Herria, el 18 de marzo del 2025

**LAB**

**steilas**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**CCOO**  
irakaskuntza